

Euskarari buruzko motibazioak: iritziak eta jarrerak

Inkestatu guzietan, euskaldun ala erdaldun, iritzi zerrenda bat proposatu zeie, galdeginez ados zirenez bai ala ez. Erantzunak oso ados, ados, ezbaian, kontra arrunt kontra. Hona hemen (oso) ados direnen ehunekoak.

- Irrati-telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz : %55.
- Nahitezkoa da haur guzietan euskara ikas dezaten : %51.
- Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea : %53.
- Hobe da ingelesa ikastea ezinez eta euskara : %53.

Iritzi hauek oinarritzat hartuz 3 jarrera definitu dira euskararen sustatzeari buruz: (oso) aldekoak, ez alde ez aurka, (oso) aurkakoak. Ipar Euskal Herrian orokorki aldekoak eta axolagabeak berdintsu dira %40 eta aurkakoak askoz gutiago %21. Ageri da iritzi publikoaren gehiengo bat prest dela euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta onartzeko.

Euskara sustatzeko jarrerak (%)

Aldagaiak Jarrerak	Oro tara	Euskal dun	Erdal dun	Berta ko	Etor kin	65 urte eta +	16-24 urte
Aldekoak	39	73	25	55	25	41	36
Ez alde ez aurka	40	22	47	32	47	39	41
Aurkakoak	21	5	28	13	28	20	23

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzaren EEP, 2011.

Euskararen ezagutzari begira, euskaradunetan, aldeko jarrerak (%73) askoz aurkako jarrerak (%5) baino gorago dira. Aldiz erdaldunetan %25 dira euskararen aitzinamenduaren alde eta %28 aurka. Itxuraz hizkuntza gaitasuna eta euskararen aldeko gogoak elkarri lotuak dira. BABn alde %28, kontra %35. Lapurdi barnean alde %42, kontra %20. Nafarroa Beherean eta Zuberoan alde %54, kontra %10.

Beste aldagai batzu badira euskararen aldeko jarrera baldintzatzen dutenak, adibidez erantzulearen sorteria. Euskal Herrian sortu direnetan aldeko jarrerak %55 dira eta aurkakoak %13. Euskal Herritik kanpo sortuak direnetan: aurkako jarrerak %28 eta aldekoak %25.

Adinarte zaharrenean dira euskararen aldekoak gorenean (%41) eta adinarte gazteenean apalenean (%36). Ohargarri da axolagabeen neurri indartsua adin-talde guzietan, %39 batzuek beste, indartsuago 35 urtez petikakoetan. 16-24 urtekoetan aldekoak apalenean da (%36), axolagabeak gutitu dira (%41) baina aurkako neurria gorenean da (%23)! Altaba euskararen aldeko motibazioa sustatu behar da, hizkuntza politikak ondorio eraginkorrak luzaz eman ditzan.

Euskarari buruz zer jarrera beste lurraldeetan ?

Euskal Autonomioa Erkidegoan : alde %62 (Gipuzkoan %75)

Nafarroan : alde %28, kontra %35.

Euskarari buruzko itxaropena

Eukara galtzeko arriskuan ? (%)

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	65 urte +	16-25
Euskara arriskuan	41	46	38	25	66
Ezbaian	6	5	7	5	7
Arriskuz kanpo	49	46	51	64	25

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza eta EEP, 2011.

Eukara galtzeko arriskuan ote da ?

Oro har euskararen aldeko itxaropena da nagusi, euskaldun ala ez, bertako ala kanpoko. Salbu hiztun gazteen artean. Euskararen galtzeko beldurra handituz doa adin talde zaharretik gazteeneraino: %25, %39, %42, %55, %66. Eta arabera itxaropenaren neurria ttipituz doa: %64, %52, %48, %37, %25. Harrigarria ! Gazteak zaharrak baino beldurriago eta zaharrak gazteak baino itxaropentsuago. Ez da zuzen !

Euskaldunak zalantzan daude, baikor bezainbat ezkor euskararen geroaz. Egoera honek erakusten du Hizkuntza Politikako 12. erronka nagusiaren garrantzia : "motibapena piztu, idartu eta egonkortu (behar da), euskararen ikastearen, baliatzearen eta jarraitzearen dinamika iraunkorra jendartean sortzeko gisan".

Norabide estrategikoak lau eremutan definituak dira : euskarazko zerbitzu erakargarriak eskainiz familiei, jende helduei, hots euskara entzuteko, ikusteko eta erabiltzeko paradak sortuz; publiko zabalari buruzko informazioa; transmisioa familia eta eskolaren arteko sinergiaren bidez; sentiberatze estrategia egokia plantan ezar gazteentzat, gurasoentzat, euskalgintzako eragileentzat.

2011-2016 bide-orriak indartu nahi du Euskararen Erakundea eta Euskalgintzako elkarten artean lankidetzat bat, ororentzat motibagarria.

Erramun Bachoc, 2012-12-31.